

Helburua

Dokumentu honek inbertsio-produktu honi buruz jakin behar duzun funtsezko informazioa ematen dizu. Ez da material komertziala. Legez eskatzen den informazioa da, zuri produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta balizko onurak eta galerak ulertzen eta beste produktu batzuekin konparatzen laguntzeko.

Produktua

Izena	Produktu Egituratua 95 / 5 ENAGAS 07-2025 II NOE 28859
Identifikatzailea:	NOE 28859
Fabrikatzailea:	Banco de Sabadell, S.A. IFZ A08000143
Harremanetarako datuak:	https://www.bancosabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRIIPS/2000025609204/es/
Telefonoa:	963.085.000; Espainia kanpotik deitzen baduzu: +34 935 916 360
Agintaritza eskuduna:	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala
Funtsezko Datuen Dokumentuaren produkzio-data:	2020ko uztailaren 29a

Erraza ez den eta ulertzen zaila izan daitekeen produktu bat eskuratzeko zorian zaude:

Zer da produktu hau?

Mota

Finantza Kontratua

Helburuak

Produktuaren helburua zera da, erreferentziatzko indize baten edo batzuen portaerari lotuta dagoen finantza-tresna batean inbertsio bat egitea errentagarritasun bat lortzeko, kapitala galtzeko arriskua onartuz. Ondoren adierazten diren zenbatekoak zuk inbertitzen duzun Zenbateko Nominal bakoitza adierazten dute. Kalkulu-agenteak dagozkion zenbatekoak zehaztuko ditu.

Erreferentziatzko indizeak

Etekin Enagas SAri (Bloomberg-ENG SM Equity) dago lotuta.

Nola zehazten da etekina?

- 2021eko uztailaren 30ean, % 0,5aren gaineko kupoi bat jasoko duzu Zenbateko Nominalaren % 95aren gainean, 2020ko uztailaren 30etik 2021eko uztailaren 30era bitarteko aldiaren kontura, ACT/365 oinarrian kalkulaturia, eta Zenbateko Nominalaren % 95 jasoko duzu.
- Gainerako Zenbateko Nominal biziaren gainean (Zenbateko Nominalaren % 5): Behaketa-data bakoitzean, indizearen itxiera-prezioa bere Hasierako mailaren berdina edo handiagoa bada, dagokion Likidazio-datan, gainerako Zenbateko Nominal biziaren gaineko % 0,5eko kupoi bat jasoko duzu. Aurreko aldiaren kupoirik kobratu ez bada, % 0,5eko kupoi gehigarri bat jasoko duzu kupoirik kobratu gabeko aurreko aldien kopuruaren kontura. Hala ez bada, ez duzu kupoirik jasoko.
- Mugaeguneratzean, honako egoera hauek gerta litezke:
 - Indizearen Azken Maila bere Hasierako Mailaren % 80 edo handiagoa bada, gainerako Zenbateko Nominal bizia berreskuratuko duzu.
 - Hala ez bada, hau da, Indizearen Azken Maila, argi eta garbi, bere Hasierako Mailaren % 80aren azpitik badabil, gainerako Zenbateko Nominal bizia berreskuratuko duzu, Indizeak bere Hasierako Mailatik izan duen beherakadaren arabera murriztua.

Funtsezko datak eta datuak

- Kalkulu-agentea: Banco de Sabadell, S.A.
- Gutxienezko zenbateko nominala: 100.000 EUR
- Jaulkipen-data: 2020ko uztailaren 30a.
- Muga-eguna: 2025eko uztailaren 30a.
- Hasierako maila: Erreferentziatzko indizearen itxiera-prezioa hasierako behaketa-datan
- Bukarako maila: Azken Behaketarako Datetan Indizeak izandako itxiera-prezioen batezbesteko aritmetikoa
- Behaketa-datak:
 - Hasierako behaketa-data: 2020ko uztailaren 28a.
 - Kupoiaren behaketa-datak: 5 egun baliodun likidazio-data bakoitzaren eta azken behaketa-dataren aurretik
 - Azken Behaketarako Datak: 2025eko uztailaren 21a, 2025eko uztailaren 22a eta 2025eko uztailaren 23a
- Likidazio-datak: uztailaren 30 guztiak, Muga-egunera arte. Asteburua edo jaieguna bada, Modified Following konbentzioa erabiliko da.


Zein inbertitzaile minoritari dagoen zuzenduta

Batez ere honako hauei dago zuzenduta: edozein bezero, produktu horretan edo antzeko produktutan alde aurretik duen ezagutza- edo esperientzia-maila aurreratua izanik, % 5eko galerak onartzeko ahalmenarekin, zeinaren profila <<arrisku ertaina txikia>> den. Era berean, xede-bezeroen inbertsio-helburuak produktuaren muga-egunarekin koherentea den eta eragiketaren xedetzat errentak lortu eta kapitala haztea duen inbertsio-horizonte bati egongo lirateke lotuta, zerbitzua soilik egikaritzekoa (txikizkako bezeroak salbu), komenigarritasun-testa duen soilik egikaritzekoa, aholkularitza independentekoa, aholkularitza ez-independentekoa eta diru-zorroren kudeaketa diskrezionalakoa izanik.

Zer arrisku ditut eta zer lortuko nuke horien truke?

Arrisku-adierazlea

Arriskurik txikiena



Riesgo más alto



Arrisku-adierazleak produktua 2025eko uztailaren 30eraino mantenduko duzula eskatzen du. Zuk ezin izango duzu kontratua aldez aurretik ezereztu, salbu eta erakundearekin akordio bat baduzu kontratuan ezarritakoari jarraikiz.

Arrisku-adierazle laburtua produktu honek beste batzuekin alderatuta duen arrisku-mailaren gida bat da. Merkatuen bilakaerarengatik edo guk ezin dizugulako ordaindu produktuak dirua galtzeko dituen probabilitateak azaltzen ditu. Produktu hau 3. arrisku-mailan sailkatu dugu 7ko eskala batean, non 3 <<arrisku ertaina txikia>> den. Horretarako bi elementu izaten dira kontuan: 1) merkatu-arriskua (erreferentziatzko indizearen hegazkortasun-arriskua eta interes-tasaren arriskua); etorkizuneko portaeratik eratorritako balizko galerak arrisku txiki gisa sailkatzea; eta 2) kreditu-arriskua eta merkatuaren koiuntura txar batek Bankuak zuri ordaintzeko duen ahalmena erasanda geratzeko probabilitatea txikia izatea. Suntsiarazpen-agintariak, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak berregituratu eta suntsiarazteari buruzko Europako 2014/59/EB zuzentaraua aplikatuz, birkapitalizatzeari lotutako finantza-tresnak amortizatzen eta/edo beste balore batzuetan bihurtzeko edo bestela jaulkitzailearen aktiboak eta/edo negozio-unitateak eskualdatzeko erabakia hartzeko arriskua. Zure kapitalaren % 95 gutxienez berreskuratzeko eskubidea duzu. Zenbateko horren gainetik dagoen edozein kopuru, eta edozein etekin osagarri, merkatuaren etorkizunaren bilakaeraren arabera daude, eta ezin dira aurretik jakin. Zor dizuguna zuri ordaintzerik ez badugu, zure inbertsio osoa gal zenezake.

Errentagarritasun-egoerak

Merkatuak etorkizunean izango duen bilakaeraren aurreikuspen zehatza ezin da egin. Barne hartzen diren egoerak, azken etekinak oinarritzat hartuz izan daitezkeen emaitza posibleetako batzuen adierazpen soilak dira. Baliteke benetako etekinak txikiagoak izatea.

Inbertsioa (10.000 EUR)

Egoerak		urte 1	3 urte	5 urte Gomendatutako mantentzealdia
Tentsio-egoera	Kostuak kendu ondoren jaso dezakezuna	9.512 EUR	9.542 EUR	9.520 EUR
	Batez besteko etekina urtero	-% 4,88	-% 1,55	-% 0,98
Egoera txarra	Kostuak kendu ondoren jaso dezakezuna	9.798 EUR	9.653 EUR	9.621 EUR
	Batez besteko etekina urtero	-% 2,02	-% 1,17	-% 0,77
Escenario moderado	Kostuak kendu ondoren jaso dezakezuna	9.873 EUR	9.803 EUR	9.904 EUR
	Batez besteko etekina urtero	-% 1,28	-% 0,66	-% 0,19
Escenario favorable	Kostuak kendu ondoren jaso dezakezuna	9.930 EUR	9.880 EUR	9.912 EUR
	Batez besteko etekina urtero	-% 0,70	-% 0,40	-% 0,18

Lehendik definitutako behaketa-datetan lortutako balizko fluxuak (kupoiak eta/edo autoezerezteak) gomendatutako inbertsioaldia amaitu arte arrisku-tasa librean berriz inbertitzea beren gain hartzen dute aurreko egoerak.

Taula honek adierazten du zuk datozen 5 urteetan jaso dezakezun dirua, egoera bakoitzaren arabera, 10.000 euroko inbertsioa egiten duzula suposatuz. Aurkezten diren egoerak zure inbertsioak izan dezakeen errentagarritasuna azaltzen dute. Beste produktu batzuen egoerekin konpara ditzakezu. Aurkeztutako egoerarako etorkizuneko errentagarritasuna kalkulatu da, inbertsio horrek iraganean izan duen aldaketaren datuetan oinarrituta, eta beraz, egoera horiek ez dira adierazle zehatzak. Jasoko duzuna aldatu egingo da merkatuaren bilakaeraren eta inbertsioa edo produktua mantentzen duzun denboraren arabera. Tentsio-egoerak merkatuen muturreko zirkunstantzian jaso dezakezuna adierazten du, eta ez du kontuan izaten guk zuri ordaindu ezin dizugun egoera bat. Produktu hau ezin da efektibo bihurtu, eta horrek esan nahi du muga-eguna baino lehenago salduz gero jasoko zenukeen zenbatekoa ezin dela zehaztu. Ezingo duzu lehenago saldu, eta hala eginez gero kostu handia ordaindu beharko duzu edo galera nabarmena izango duzu.

Aurkezten diren kopuruek produktuaren kostu guztiak biltzen dituzte, eta aholkulariaren edo banatzailearen kostuak era biltzen dituzte. Kopuruek ez dute kontuan hartzen egoera fiskal pertsonala, eta egoera horrek jasoko duzun kopuruan eragina izan dezake.

Zer gertatzen da Banco de Sabadell, S.A.k ezin badu ordaindu?

Finantza Kontratu hau ez da banku-gordailu bat, eta, horrenbestez, ez du konpentsazio- edo berme-erregimen baten estaldura. Hortaz, muga-egunera iristean bankuak ordaintzerik ez badu kaudimengabea delako, bezeroa Bankuko gainerako hartzekodun arruntekin bilduko da, eta pribilegioa edo bermea duten hartzekodunen mendean geratuko da; beraz, mendeko hartzekodun eta akziodunen aurretik soilik izango du lehentasuna.

Zein dira kostuak?

Etekinaren murrizketak (RIY) lor dezakezun inbertsioaren etekinean ordaintzen dituzun guztizko kostuek izango duten inpaktua adierazten du. Guztizko kostuek kostu bakarrak, arruntak eta osagarriak hartzen ditu kontuan.

Hemen adierazitako zenbatekoak hiru mantentze-eperi dagozkien produktuaren kostu metagarriak dira. Irteera aurreratuetatik jar daitezkeen penalizazioak barnean hartzen dituzte. Zifrek aurreikusten dute zuk 10.000 EUR inbertituko dituzula. Zifrak aurreikuspenak dira, eta beraz etorkizunean aldatu egin daitezke.

Kostuak denboran zehar

Inbertsioa (10.000 EUR)

Egoerak	Urte 1 igaro ondoren irtenda	3 urte igaro ondoren irtenda	Irteerarekin (gomendatutako mantentzealdiaren amaieran)
Kostuak guztira	215,05 EUR	215,38 EUR	114,40 EUR
Etekinaren murrizketaren gaineko inpaktua urteko	% 2,15	% 0,72	% 0,23

Kostuen osaera

Ondorengo taulak honako hau adierazten du:

- Kostu mota desberdinek gomendatutako mantentzealdiaren amaieran inbertsioaren etekinean urtero izan dezaketen inpaktua;
- Kostu-kategoria bakoitzaren esanahia.

Taula honek adierazten du etekinaren gaineko inpaktua urteko

Kostu bakarrak	Sarrera-kostuak	% 0,23	Zure inbertsioa egiterakoan ordaintzen dituzun kostuen inpaktua. Kostuen inpaktua prezioaren barnean hartuta dago dagoeneko. Kopuru horrek zure produktuaren banaketa-kostuak hartzen ditu barnean.
	Irteera-kostuak	EA	Zure inbertsioaren irteera-kostuen inpaktua muga-egunera iristen denean.
Kostu arruntak	Diru-zorroaren eragiketa-kostuak	EA	Produktuaren azpiko inbertsioen erosketak eta salmentak guretzat izango dituzten kostuen inpaktua.
	Beste kostu arrunt batzuk	EA	Zure inbertsioen kudeaketaren urteko kostuen eta II. atalean aurkezten diren kostuen inpaktua.
Kostu osagarriak	Etekin-komisioak	EA	Ez da aplikatzen
	Kontuko partaidetzak	EA	Ez da aplikatzen

Zenbat denboraz mantendu behar dut inbertsioa, eta dirua modu aurreratuan erretiratu dezaket?

Gomendatutako mantentzealdia: 5 urte.

Gomendatutako mantentzealdia produktuaren muga-egunarekin bat dator. Mesedez kontuan izan ez dagoela aurreikusita produktua muga-eguna iritsi baino lehen bertan behera uztea, ez duelako likidezirik. Nolanahi ere, Erakundeak alde aurretik bertan behera uztea onartzen badu kontratuan ezarritako baldintzetan, bertan behera uzte horren kostua, gehienez, kontratatutako nominalaren % 1 izango da.

Nola erreklamatu dezaket?

Produktu honi edo jaso duzun zerbitzuari buruzko kexa edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, gure Bezeroaren Arretarako Zerbitzura jo ahal izango duzu, <https://www.bancsabadell.com> webgunean eskura dagoen harremanetarako Inprimakiaren bitartez eta/edo helbide honetara posta-gutun bat bidaliz: Servicio de Atención al cliente – Centro Banco Sabadell, Polígono Can Sant Joan. Calle Sena, 12, 08174 Sant Cugat del Vallès edo posta elektronikoki bidez SAC@bancsabadell.com helbidera, betiere bitarteko horren erabilera sinadura elektronikoki buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean xedatutakora egokitzen bada. Bezeroaren Arretarako Zerbitzuan erreklamatu ondoren Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean erreklamatzeko aukera dago.

Beste datu interesgarri batzuk

Funtsezko Datuen Dokumentu (FDD) honetan egin daitekeen edozein eguneratze eskuragarri egongo da Banco Sabadellen webgunean edo BS Onlinen bezeroaren posizio-kontuan.